"Tierra ligera (geo. agr.). - Luf-me (2)" /(suelo)Luf (1) (3); Liof (2)"
"Tierra profunda, (agr.). - Lur-lodi (2); Luf-zakon (3)"
"Tigre, (zoo.). - Katamotz (2)"
"Tipolitografía, (ind.). - Moldagintza (1)"
"Torrente, (geo.). - Uriol (1); Uiol (1)"
"Torrentera, (geo.). - Ur-bizia (2); Ur-marmartsua (3)"
"Tranvía, (urb.). - Tximist-gurdi (3)"
"Transformación, (ind.). - Obekuntza (3); Biurketa (3)"
"Traslación,(geo.). - Eraldiko (1) (mov.)"

Andima?
Aundi Beitramano

"Trueno, (geo.).	- Iuzturi (1)"
"Tudela, (geo.).	- Muskaria (2)"
"Vacuno, (zoo.).	- Abel-goŕi (2) (3)"
"Vaho, (geo.).	- Lúfun (2)"
"Válvula, (ind.).	- Iges-zulo (3)"
"Valle, (geo.).	- Aran (1) (2)"
"Vapor de agua, (ind.).	- Ur-komeartsu (1); Ur-lufun (2); Ur-lufin (3)"
"Vega, (geo.).	- Ibaŕ (1) (2) (3)"
"Vegetación, (agr.).	- Bedaŕ (1)"
"Ventilado, (geo.).	- Aizeztua (3)"
"Venus, (geo.).	- Artizaŕ (1) (2)"
"Veraneo, (geo.).	- Udaldi (2)"
"Verano, (geo.).	- Uda (1) (2) (3)"
"Vertiente, (geo.).	- Isurtegi (2)"
"Viento, (geo.).	- Aize (1) (2) (3)"
"Volcán, (geo.).	- Garmendi (1); Sutokari (2)"
"Zanja, (geo.).	- Lubaki (2)"
"Zaragoza, (Aragón),	- Saldua (3)"
"Zodiaco, (geo.).	- Eguzki-bide (3)"
"Zona glacial, (geo.).	- Izotz-alde (2)"
"Zona templada, (geo.).	- Epel-alde (2)"
"Zona tórrida, (geo.).	- Bero-alde (2)"

"Laburketak : (geo.). Geografía. - (agr.). Agricultura. - (mar.). Marítimo. - (zoo.). Zoología. - (urb.). Urbano."

"Oŕak : Zuzkidatzak gaurko erara inguratuak izan dira.
Itz geienok iztegietan dira; batu ba'dira emen, idatzlan onein mamina nabaitu daikegun, izan da.
"s" eta "z"'ak agertzen diran lez iaŕi dira.
Egunero darabilguzen izan asko ere aurkitzen da idazti ofeitan, batez ere, abere, zugatz eta gainerakoenak, ez dira iaŕi emen luzatu ez dadin lar.
Lutelesti egoki bat egiteko itz asko biar dira oneitzaz gainera; auŕentzakoa egiteko ofen-baten oneigaz."

Urrestaratzu, Andoni

Urrestarazu

1956. E.G.

EUSKERA TA EUSKEL-KULTURA

Kultura zer dan esatea ez deritzaigu gauza eŕeza, itz batean beñepein. Kultura itzaren zentzu barnean iru gauza auek ditugu ikusteko : Azitasuna, Ikaspenak eta Yakintza utsa.

Bere zentzun osoan bederik, iru auetakoak sartuta dagoz noski. Alabaña, kultura itza, besteetara ta zentzun labuŕagotan darabilgu askotan.

Aspaldiko kultura, oraingo kultura, ... esaten da aldiaren barna.
Kultura erlijiosoa, ertizko kultura, ... gaiari so-egin badiogu.
Kultura aundia, kultura medaŕa, ... yakintzaz asko ala gutxikoa izan ezkero.
Gerketaŕ'en kultura, Eŕomataŕ'en kultura, ... eŕi bati ala besteari dagokionez.
Sortaldeko kultura, Sartaldeko kultura, ... eskualdeai so-dagionez.
.....

Gaurko egunetan gero ta geiago erabiltzen dan itz onen bidez, asieran aipatu ditugun adaŕak: Azitasuna, Ikaspenak eta Yakintza, adierazten dira; batez ere, azkenengo biak. Eta maiz be entzuten dugu: Franzia'ko kultura, España'koa, England'ekoa eta abaŕ.

Kultura guzti auek, danak eta bakoitzak, esandako zentzunak dituzte. Ikasten eta irakasten diran ezagupenak, Ludi'ko yakintzaren gaiak, orokaŕak dira, gizadi osoarenak: Fisika-legeak, e.b., berdin-berdiñak dira eŕietan barna.

Azitasuna, gure adimen, zentzun eta biotzari dagokie, giz-artean al diteken ongien jokatzeko; adimen, zentzun eta biotza ez izatean, gero, emen ala ango gizasemeen gogo-aberastasuna, gizon guztiena baño, gizonarena baizik.

Alaz ere, Franzia, España, England, ...'ko kulturaz egunero mintzatzen da, beti ta alde guztietan. Zer ote da, bada, kultura oietan, bata besteengandik bereizten duena ?. Zertan ote datza berezitasun ori, kultura bakoitzari berezitasuna ematen diona ?

Ez ote da, alegia, eŕi bakoitzaren izkuntza ?. Bai, noski; guretzat beñepein, ementxe dago azalpen nabariena, eŕien eleetan, izkuntzetan. Parantzerak ematen die parantzetaŕei beren yakintza ta azitasunaren ikuŕ berezia; españerak, españaŕai; englandera, englandaŕai, e. a. Beraz, Franzia'ko kultura, España, England, e. a.'ekoa , parantzeraz, españeraz, englanderaz, ... egindakoa; alakotz, euskel-kultura, euskeraz eta ez bestez egiñakoa. Parantzeraz, españeraz, englanderaz edo beste izkuntzaz egindako kultura, naiz eta euskel-gai utsak erabiliaŕen, ez da iñoiz izango ben-benetako euskel-kultura, beste ele bakoitzarena baizik.

Galdera bat sortu liteke emen: orduan, "Eusko-Ikaskuntza"'k eta onelako beste bazkunak egindako lanak, alpeŕik ote ?. Gure burua, ontaz, atzipetu ote dugu ?. Iñolaz ere ez !.Oŕelako oldozpenik iñoiz gure barnean! Ezin !. Onelako bazkunetan, naiz ta aldizkari, itzaldi ta ikaste guztietan egindako lana, beti onurakoŕ; zalantzik ez ontan.

Baña, ots, erderaz egindako lan guztia, gero euskeraz egingo danaren oñaŕitzat artu beaŕ dugu. Lan guztietan malak daude; orobat, beaŕez, egiten ari geran gurean be. Ontzat artu ditugu beti orain arte egindako lan

guztiak; areago egitea nai dugu beti ere, baña euskerari gero ta toki geio ta aundiagoz.

Euskel-gaietan ari diranak auxe ausnartu beaŕ dute sendoki: ben-benetako euskel-kultura aurkitu ezin ditekela, ez eta egin ere, euskerarен landa. Emengo gai au, ango beste ura, aŕ edo utzi diteke norberarentzat edo bestearentzat, gizon batek, bakaŕik, alde guztietara so-egitea eziña baita; baña ezin utzi euskerarena, euskera guztiena eta guztiontzat izan beaŕ, euskera Eŕi osoarena dugulako, iñork utzi eziñik.

Gogo ta eleak alkaŕenganako dituen aŕ-emanak nolako sendoak diran ukatzekorik ez. Guretzat ulerkaitza benetan bata bestearen gabe bizi alizatea, oŕen estuki ta ertsiki baitagozen biak.

Ez gera gu bakaŕik oldozpen auetan murgiltzen geranok. Beste ainbeste ari izan dira olakoetan eta beren iritziak, antzeko denak, bufustan irakuŕi ditezke liburu ta aldizkarietan.

Onurakoŕ deritzaizkigularik aipatu nai ditugu emen gure eŕitaŕ jakintsu bien irizpideak.

Olabide apaizak, Josu-lagunak, Euskaltzaindi'n egindako itzaldi batean, onelaxe zeindu zuen elea: "Gorputzarekiko odola, oŕa or elea gogoarenganako".
Eta Unamuno'k: "Elea, gogoaren odola".

Itzez bereizi, zentzunez berdin; alkaŕengandik ain uŕuneko ziran euskaldun bi aiek, izkuntzarekiko asmokide.

Unamuno'k berak, beste batez: "Itzik gabe, oldozpenik ez".

Beste batzuentzat: "Izkuntz aldatzea, gogo aldatzea";"Bere elea galtzen duen Eŕiak, aurki galdu ere bere gogoa"; eta onelakoak ainbat eta ainbeste.
Oldozpen guztiauek argiro dagoz egiztatu gure Eŕia'ren barna. Asmoz eta egitez, egi utsa guretzat.

Sakonago a sartu nai dugu oldozpen auetan. Yainkoa'gan simisturik, Aita Gogo dala ta Semea Aren Itza, aitortzen dugu biotzez; Bata es Beste, ta Biak Bat direla bayeztu ere.

Erabeti ta bilduŕez ari gera ontan, eta ez genuke nai izango, iñolaz ere, beaŕ ez dana esatea; baña zer edo zerk zirikatzen gaitu asmo auen barna.
Erakutsi egin digute, gizona, egiz, Yainkoa'ren antzo egiña dala. Aita ta Semea, Gogo ta Itza'ren antzo ez ote dira gure gogo ta itza ere ?.

Aita bat da, Semea beste bat eta biak Gogo-Guren'arekin Bat dagite: Yainkoa.
Gure gogoa bat da, gure itza, gure elea, beste bat; eta biak, maitasunarekin, bat, geron nortasuna, gizona dagitela ez ote ?

Asmo auek indaŕ aundiago ematen digute eta, berekin, gure irizpidea sendotzen ari.

Asmoak edaturik bada, gure euskel-gogoa ta gure euskera, bi izanik, alkaŕengandik ezin bizi, eta bien artean, biak biltzen dituen gure euskel-maitasunarekin, bat egin beaŕ: euskalduna.

Eta guzti au zentzunezkoa bada, egia baldin bada (guretzat bai ~~ez~~ bederen), nola ez dugu maite beaŕ gure euskera, gure euskel-gogoarentzat oŕen beaŕa dala ikusi ezkero ?. Eta nola ez dugu lanegin beaŕ ura eustean, oŕelaz beste au laguntzen dugulakoan ?

Lenago esan dugunez, Franzia'ko kultura parantzeraz egiten da; alaber España'koa españeraz, England'ekoa englanderaz, eta guztiak berdin. Orobat Euzkadi'koa euskeraz; argiagorik !

Guretzat, bada, gure gogoa eusteko, Eŕia Euskaleŕi'z bizitzeko, euskera beaŕ-beaŕenik; ondorioz, Ludi'ko beste eŕi guztiak ontzat artu bear dute, elburu oiek betetzeko eskatzen dugun beaŕezkoa zaigun azkatasuna, gure bizi berezia eratzeko eskubidea.

Eskubide au, gañera, ez guretzat bakaŕik, giza-seme guztientzat eskatu beaŕ. Guri euskeraz gertatzen zaiguna, besteai ere orobat bakoitzaren izkuntzaz.

Euskera beaŕezkoa dugula, diñogu, euskel-kulturarako. Beraz, euskel-kultura auxe edo dugu: euskeraz, euskerazko oldozmenez, Ludi'ko ta Yakintza'ren ezagupenak lortu ta edatzeko Euzkadi'n erabiliko dan era berezia.

Egiz eta ertsikiz, ezin euskel-kulturaz mintzatzea, maīa guzietako kultura euzkeraz egin eta jaso arte; eŕiko bizi guztia, goian eta bean, aŕunt eta yakintzakoa, euzkeraz okitu arte.

Noizpait oŕelakorik iristeko, kultura-antolatze osoa zaigu beaŕa; eratze ontan, beti elbururuntz abiatua, iraŏurik bage, euskera sartzen ari izango da , maīaz-maīa, astiro bai baña uŕatzez sendoki.

Eratze oŕek Euzkadi'n kulturazko agerpen guztiak inguraturik, elburu bi auetxetaruntz egiña izan beaŕ: 1 - Gure Eŕi'aren gogo berezia eutsi ta indartu. 2 - Gure giza-semeen yakintasuna eten gaberik goratu. Ludi'ko beste kulturaen goiera berean eta berenekin aŕ-emanetan.

Elburua tinko yaŕirik, elbururuntzkoa artez zuzendurik, nundik asi jakin beaŕ bai ta erabiltzeko ditugun indaŕak ere zeintzuek diran; indaŕ edo bide auen gaitasun eta almen guztiak beren neuŕian ibiīerazteko, eta lentxoago diñogun bezela, geldiro, aŕetaz, auŕeratzeko dedin uŕatz txikienik ere eman gabe utzirik.

NUNDIK ASI : Jakiña, ezin iñolaz ~~re~~ ere, orain gagozen egokera, biziera ontatik asi. Gaur, gure Eŕi'an, kulturazko erakunde guziak erdelkutsuturik oro ta euskeraren auŕezkoak; beraz, ezin izan, bat-bat ere, asteko biderik.

Nai ta beaŕa zaigun elbururuntz abiatzeko, elburu ortara noizpait eltzeko gai izan dedin, bide zuzen, ziuŕ eta sendo artzeko, beaŕ-beaŕa zaigu kulturarako zuzentza guztia gure eskuetan, euskaltzaleen eskuetan euki ta erabiltzea.

Eta, zoritxaŕez, oŕelakorik lortzeko, ~~e~~ asteko une ta mugon oiek gureganatzekoa ez dago, noski, kultura-arazoetan, politikakoetan baizik. Ala ere, aipagaŕia, orixe lortuko luken politika-joera !

Gai ontan, bada, politikarena burutzean, antxe bertan asi beaŕ kulturarena. Beraz, onezaz mintzaturik, bestearena lortutakotzat daukagu. Alpeŕik agian, orain ordurako mintzatzea ?. Ez oŕelakorik, une artara gure Eŕia, noiz edo noiz, elduko dalakoan ziuŕ baikaude.

INDARRAK, BIDEAK : Alde batetik, onak, oso onak izango lirake: "Euskо-Ikaskuntza", "Euskaltzaindi", "Eskualtzaleen Biltzarra", "Euskaltzaleak", "Jaungoiko-Zale", "Baraibar-saldoa", "Eusko-Pizkunde" eta abar; len eta oraingo onelako bazkun guztiak. Len aipatu dugun azkatasunezko mugonean, orain bizirik gabe daudenak eta denak, berealaxe ta indartsuago zutik jarri litezkenak.

Baña onelako bazkunak, geientsuenak, kultura goiko maletan zear ibiltzekoak diran ezkero, goi-ikaskintzaren ondore izanik, ± mala ortan bakarik izango edo zaizkigu onuratsu.

Ofexegaitik, len aipatu elburuak, beste erakunde osoago, betegariago, bearra dute: irakaskintza oso-osorik, lenengo abedetik goi-goieneko yakintza-bilakatzeraño, irakas-erakunde batean antolatua izan bear. Eta ain zuzen ere, erakunde berezi ori, gañera, euskaldunen eskuak egin eta zuzendu bear dute, azkatasunean.

Gure indar nagusiena, beraz, azkatasun-osoa; Eri-bizitzaren mota guztietarako, baña batez ere kultura-arazoetarako.

Eta indar ori eskuetan izanik, umien eskola, lendabiziko irakaskintza, ofotik aldatu bear, lenen-lenengoz.

Asteko ontan, eratzaleen lana areta aundienaz erabilki; bertan ardura zofotzenez ari izanik.

Lendabiziko irakaskintza onek bitarikotan ikus dezakegu: Umeen eskola, lenengo eskola, bera danez, eta irakasleen eratzea.

Lenengoa dala-ta, bi aldetatik ere aztertzekoa: naizeuskeldun euskeldun-erietarako, naiz erdeldunetarako.

Euskeldun-aurai berealaxe asiko zaie euskeraz irakur eta idazten, ongi ta zuzen, irakasten; areta aundienaz beti ere (esate baterako: bearrezkoenak diran itz-berriak soilik ikaserazten). Alegu Alegin aundienak dira egiñezkoak, beti baña asieran batez ere, eskolako euskera erian bertan mintzatzen danaren antz-antzekoa izan dedin, guztiz berdiña ezin bada ere; onelaxe, aurak eta urteetan sartutako giza-semeen artean (gurasoak eta), gogo-bereztasunik sortu ez dedin. Egokiena izango zaigu, noski, aundi ta txikien artean, —aundi geienak abederik gabekoak izanda, txikiak ordea, euskera eliztiz eta beste lenengo ikasketak euskeraz ere ikasten ari izanik—, al diteken indar gabeko aldatze ta igarotze egitea.

Jakiña, ainbeste areta ta ajolaz erabiltzekoa izango dan lana, irakasleak bete bear. Beraz, auen eratzea, egokitasun ortarako kirmen eta bereziki egitekoa.

Euskel-eliztia asi-asieratik irakastekoa izango dugu; euskel-ikastoletan erabiliko dana, erraza ta guzia euskeraz egiña izango da; eta gañera, al ditekenean, eri bakoitzeko euskalgi berezian (bizkaieraz, gipuzkoeraz, laburdieraz, ...).

Giza-ozte artean iñoiz begiko eliztiaren ikastea; ala ere, utzi eziñezkoa dalarik, egiñalak egingo dira, izkuntza ongi jakin eta erabiltzeko duen garantzia nolakoa dan, buru guztietan sartzeko.

Euskel-eliztiaren batera, eta bera bezelakorik, argitara-eraziko

~~du~~ dira, al dan laisteŕen, irakurgaiezko liburu eŕazak, eta era berean lenengo irakaskintzan ikasteko ditezen beste gaietakoak: Lutelestia, Mapak, Euskel-kondaira, Gizadi, Abere ta Landare-kondaira, Matematikak, eta abaŕ; ikas-mota guzti auek, Kristau-Ikasbide'az, euskel-ikastolako lenengo ikasteak bete ditzakete ongi.

Liburu guzti auen ekoizpenetan, danak euskeraz eta eŕi bakoitzaren euskalgian egiñak, itz-beŕiak al dan uŕiki erabiltzekoak, eta ~~[illegible]~~ beaŕak, euskalgi guztietan berdiñak oro; onelaxe, uŕatz on bat egingo genuke euskeraren batasuneruntz, batez ere, gure ustez, Euskaltzaindi'aren zuzenbidez egin ezkero.

Erdel-tokietako eskolak bestera antolatzekoak. Emen, noski, erdera erabīli beaŕ irakaskintzetan; alabaña, euskera ere asieratik irakasiko da; onelaxe, euskera eliztiaren bidez ikasi ezkero, umeak lenago ikasiko dute, eiki, irakuŕ eta idazten, itzegiten baño, auxe eskolako lanaz bakaŕik ~~izango ezpaita.~~ eŕaz izango ezpaita.

Dana dala, euskerarekiko elburua giza-semeen artean gero ta geiago saŕ eta zabaltzea izanik, erdel-eskoletan egindako ikastea beste bidez osotu beaŕ, erdaldun auŕak euskaldun uts biurtzeko. Onela gure Eŕiak gaurko egunean oŕen galdua duen gogo berezia ~~beŕiz~~ bereganatu dezan, lengo Euskaleŕia ~~beŕizxizatekox~~ osorik beŕiz izateko.

Euskalduntze ori eŕazago egiteko, euskaldun eŕietara eramango dira, aldiz, euskeraz ikasten ari izango diran erdeldun auŕak, bai ta gazteak ere. Auŕ eta gazteen aldatze au be, ajol aundienaz antolatzeko.

Aldatze onen buruz, aukeratuko da, lendik, erdeldun-eŕi bakoitzean erabīliko dan euskalgia; euskaldun-eskualdetik urbīlean izan ditezen eŕietan, eskualde oietako euskalgia egokiena erabiltzeko; onelaxe eŕaztuko da alde bietakoen aŕ-emanak.

Oŕela egon ez ditezen eŕietan, —Araba ta Napaŕa'ko aunitz-aunitzetan—, guretzat onena "gipuzkoera osotua", Garitaonaindia ta Azkue jaunak aolkatu zutena, aiek eta beste idazle batzuk agerturik dituzten zio guztiengatik. Dana dala, beti, izango dira ongi alkartzeko, eskola bakoitzean erabīliko dan euskalgia eta gero auŕak aldatuko diran tokietakoa, ~~[illegible]~~

Erdeldun-eŕietako eskoletan eta euskera irakasteko erabīliko dan eliztia, erderaz egiña izango da, ziurki; baña, gutxi gora-bera, euskaldunentzako egiñikoen itzulpena izatea egokia izango dugu; ta euskeraz irakurtzeko liburuak ere, berdin edo antzeko, toki guztietakoak.

Euskaldun eŕietara auŕ eta gazteen joatea, kontuz eta ajol aundienaz eratuko da. (Ikus: gai onezaz "Euzko-Gogoa" aldizkarian, 1.952'gko. Iraīla-Uŕīla - 9-10'garren zenbakietan, eta "Gazteiztarrak" izenpenez, egiña dugun lana).

IRAKASLEAK : Auen gertatzea, gaŕantzitsu benetan !

Bizitzaren ikuskizunetan barna, eskola dugu gaŕantzi aundienetakoa, biarko gizonak bertan moldatzen ari izango diralako; Ludi'ko eskualde guztietan beti izan da ajol aundiena eskolak ongien gertatzeko, beti ta orain areago. Gure aldetik ere orobat egin beaŕ, gure Eŕiak bere gogo berezia beŕiro bereganatzeko, lenengo irakaskintzan asia baitugu.

Eta eskolak onelaxe gertatu beaŕ baldin baditugu, aŕeta aundien-

az, zer esan irakasleaz, bera eskola oiei bero ta bizia ematekoa baita ?.

Oŕexegaitik ez da aski izango gure irakasleak euskera gutxi gorabera jakitea. Euskeraz ongi mintzatzea, ondo irakurtzea, ongi idaztea, irakaslea izateko lenengo baldintza ertsiak; alaz ere ez orixe naikoa.

Euskel-irakaslea irakaskintzaz eta kulturaz ongi, oso ongi, gertatua izango da beti, orixe guztia ezin izanik ordea; buru-belaŕi izan beaŕ gure euskel-gogoaren zale ta gogo berezi ori Euzkadi'ko alde guztietara beŕiro edatzeko lanari bere burua lotuko dio gartsuki, sutsu ta yoranez beterik. Eta bakoitza asmo oŕezaz beterik joango da bere zaipean izango dituen auŕai oŕenbeste soŕarazteko.

Bide ortatik uruduritsu ikusi nai izango genituzke gure irakasleak, eta oŕetarako Normal'etan edozki beaŕ gure asmo oŕen esne ~~gab~~ garbi guria. Eta beste ikastetxeetan baño geiago, euskalgi guztien ezagutze, aoz eta buruz egizko ezagutzea beaŕ-beaŕezkoa izango zaie, lenengoz, irakaslearen agerkaia lortzeko.

Irakasleak, Euzkadi'ren Lutelestia ta Kondaira, bere Lege ta aspaldiko antolatze azke berezia, naiz eta Eŕia'ren jatoŕizko agerpen guziak, zearo ta ongi ezagutu beaŕ dituztela-ta, zer esanik ez, guzti ori baita gero auŕai irakasiko dietena.

Oŕetarako ~~ger~~ antolatze guzia, xeatzez egiña, oso gaŕantzitsu izanik, are aundiago izan beaŕ euskerarekikoa, bera baita, bein eta beŕiz esango dugu, gure auzi danaren aŕigiltza, gure elbururaño eltzeko bide bakaŕ, ezin beste ta ziuŕena.

Euskel-irakasleak, bein bakoitzaren eskolan ari izanik, ezin bakandurik geratu; beti bizi ta yardungo dira jaŕiak izan ditezen maĪa guzietako ikastolekin aŕ-emanetan, umeak obeto zuzendu ditzaten, ikas-maĪa ~~bakoitzeko~~ bakoitzetik besterako bidea eŕaz eta leguntzeko; ongien antolatu ta baturik izan dedin irakaskintza guzian, eusle ~~ee~~ onenetakoak izan ditezen.

Egon ere beti egongo dira irakasleak, euskel-kulturaren edozein agerpena lagun eta indartzeko gerturik. Baña ots, irakaslearen lan guztia, berez egitekoa izango da beti, euskel-gogoari itsaspenaren ondorioz; eta ~~[illegible]~~ beti ere, alegin aundienak egiten indaŕezkoa dedin guztia baztertzeko.

ERDI TA GOI MAĪETAKO IRAKASKINTZAK : Orain arte euskeratzaz eta lenengo irakaskintzarako esan dugun guzia, beste maĪetarako ere edagaŕi.

Luzaroan, eiki, eziña izango dugu maĪa auetako ikasketan, euskera, bidez erabiltzea; ala ta guztiz be, maĪa auetako irakasle guztiak ere ondo ezagutuko dute gure izkuntza bere bizibide ortan yarduntzeko, baldintza oni iñoiz ez ukatzekotan len-lendabiziko egunetik; naiz eta astiro izan aŕen, asieratik sartu beaŕ baitugu euskera alde guzietatik.

Lenengo irakaskintzaren ondoren, maĪaz-maĪa, aŕetaz eta iradurik gabe, euskera erabiliko da, bidez, erdi ta goi maĪetako gaietan; beti auŕeruntz, astiro baña kirmen, uŕatsik galtzekean. Gizadiaren ezagupen guztiak, euskeraz irakasi ta ikasirik, gure euskel-gogo bereziaz igurtzirik izan arte.

Orduan, eta orduan bakaŕik, mintzo al izango da euskel-kulturaz; ezin bitartean.

Lenengo irakaskintzan, eskoletan, euskera, bidez, erabiltzen asi ta gero, ogei edo ogetamaren bat urte igaro beaz, eiki, bigaren malan alaber egin al-izateko; eta beste ainbesteko epea Ikastol-Nagusian ere sartzen asteko.

Alabaña, erdi ta goi-maletako ikasguetan beazkoa beti euskeraren ikastaldiak eratzea, malaka beti ta goruntz, gure izkuntzaren ezagupen osoa lortu arte.

INDAR EDO BIDE AUEN ALMENA : Al diteken heinean azkatasuna, politikaren bidez, lortuta, argi-argi dago nolako almena izango duen lenen-irakaskintzako eskolak; gelgazizko bide, neuziz gañekoa, eskolarena gure euskel bizitzarako, arduraz eta sakonki erabiltzekoa, bertatik atera ditezken zitu guztiak gureganatzeko.

Ozen uzengo beste irakaskintzaren malak, euskeraren ezagupena gero ta geiago ~~zabaltzeko, zabalera ta sakoneraz~~ edatzeko, zabalera ta sakoneraz.

Euskera ta euskerarena onazitzat arturik, ongi ta zeatzez ere ikasi ta irakasi beaz Euskalerri'ari ~~dagozkion~~ bereziki dagozkion Kondaira, Legegintza, eta abaz. ~~Ob~~ Onelaxe euskel-gogoa osorik berriz irabazi liteke, gero, beraren bidez, Erri'aren bizi guztia zuzendu ta indartzeko.

Eta onen ondoriogaz iristeko genukena: Gizadi'aren arlo guziak euskel-gogo bereziaz ikus eta ikasiak izango lirake; euskaldunek, gure artean, iñoiz baño obeto erabili, ulertu ta edaturik, gure ustez, ikusgune oberenetik ari izango bailirake.

Era ontaz, euskaldunen laguntza obe ta aundiago yakintza ororenean, yakin-gai danari bere ikuzez galgatuko liokete-ta. Beraz, norbaitek esanaz : "euskaldunak, euskaldunago ta are ororenago".

Jakiña, nolabait xeetu dugun egitarau polit ozek baldintza bat beaz auzetik: beazkoa litzaken azkatasuna. Ozatx bada, ~~ee~~ onen almen eta balioa.

Alabaña oraingoz, "baliozko olak burnirik ez" euskel-esakun zaz artaz gogoratu beaz eta azkatasun ozen igurikiz ezin ezer egin gabe egotea; aldez edo moldez beartuak gagoz gure euskel-kultura bereziaren buruz ekiteko, bideak antola ta ezaztuten, batez ere euskerari dagokionez.

Nola baña ?. Emen ere, beste ainbestetan bezela, euskel-abertzaletasunak jokatu beaz gogoz, kirmen eta sutsu; bide ontan datza, geienez, gure itxaropen oro.

Euskel-abertzaletasuna ; ona emen gure indaz eta bide nagusiena; berak ekin beaz; berak ulertzen baitu, oberenen, gure Erri'aren bizitzarako, gure euskel-kulturarako, euskerak duen gazantzi izugazia, ezin besteko biderik ukanez. Beraz, abertzaleengandik sortu beaz euskerari zaintzale ta eusle yaukalenak.

(Gaurko egokera ontan, euskeraren alde egin litekenaz, ikus len aipatutako "Euzko Gogoa" aldizkaria).

Ona emen, bada :

Lendabiziko indaz eta bidea : Euskel-abertzaletasuna; Erri azkatasunaren alde eten gabeko lanean ari dan batera, euskera ta euskel-kulturaren agerpen guziak, arduraz zaindu, indartu ta zabaltzen dituena.

Bigarena : Azkatasuna, al diteken heinean, lorturik, lendabiziko irakaskintza ta irakasleen eratzea.

Irugarena : Erdi ta goi-irakaskintza, euskel-gogoa befiro gureganatzeko buruzki zuzenduak.

Laugarena : Aspaldiko ta gaurko kultura-bazkunak, aiek berpiztuz, eta sortu ditezken ofelako beste befiak.

Euzkadi'ko kultura-bazkun eta erakunde, danak alkarturik bizi izatekoak egingo dira, alkarlagunduz, euskel-ikaslea, asieratik, bide egokienetatik eraman eta aurerazteko; lan garantzitsuen au irakasle ta gurasoak ekiten ari izango dira beti, ikasle ta Befi'aren kultura osoari so-egiñez.

Laburzki, eskema batean, urengoan jartzen dugu, gure ustez, Euzkadi'ren irakaskintza osoa nola izan liteken.

Irakaskintza ori ongienez eratzeko alegin aundienak bear; beraren barna euskel-ikasle guztiak, aberats naiz txiro, igarotzekoak; guraso guztien yoran ~~aundienak~~ aundienen buruz betegari izaitekotz.

Yakin-mala bakoitzaren gaiak ez dira emen aipatzekoak; bere egunean, irakaskintza zeatzez eratuko dutenen ardurakoa izanik.

Ona emen, bada, esandako eskema :

LENDABIZIKO IRAKASKINTZA : Aurentzako lenengo eskola; bai ta abederik gabeko urtedunentzat ere.

BIGAREN IRAKASKINTZA :

-A- Ikastetxe bereziak, Ikastol-Nagusitarako ta beste ikaskuntz berezietarako eratuak. (Gaurko "Instituto" edo "Lizeo"'ak antzo).

-B- Lugintza, arantza, ola, emakumeendako ta beste onelango elburuetarako beste ikastol bereziak. (Gaurko "Eskuelas de Artes y Ofizios" edo "Irakaslari"'enak bezela); itz batez, Ikastol-Nagusi'etako edo beste goi-ikasierak egingo ez dituztenentzat.

GOI-IRAKASKINTZA : Urengo atalak bilduko dituena :

-1~~7~~- Lenengo ~~ikaskintzatarako~~ ikaskintzarako eratuko diran irakasleen ikastetxe bereziak.
-2- Ikastol-Nagusia, bere mala guztietan.
-3- Bizibidezko ikastetxeak: Injeniero-mota danetakoa; Etxegintza; Saleroste'rakoa; etabarf.
-4- Perito-mota guztietarako ikastetxeak.
-5- Erti guztien ikastolak.
-6- Bilakatzeko landola bereziak.
-7- Ikastaro bereziak.

PARIS'en 1.954'gko. garagarilean.

Urestarazu t' Andoni

da	duk dun dúzu	záio	ziók zión ziózu	du	dik din dizu	déio	diók dión diózu
dúra	dútuk dútun dutuzu	zaitzo	zitzók zitzón zitzozu	die	dié diñe dizie	déyoe	dióya dióñe diózie
niz	nuk nun núzuk	nitzaio	nitzók nitzón nitzozu	dut	diát diñat dízut	déiot	dióyat dióñat diózut
gúra	gútuk gútun gutuzu	gitzaio	gitzók gitzón gitzozu	dúzu	diágu diñagu dizúgu	déiozu	dióyagu dióñagu diózuzu
hiz		hitzaio		duk		déiok	
hiz		hitzaio		dun		déion	
zúra		zitzaio		dúzu		déiozu	
zuraje		zitzaioe		duzie		déiozie	

VI EUSKERA EGUNA

ARGENTINA 'ko batzokiak alkartasunian
argitaratzen daben
AGERPENA

MANIFIESTO
DE LAS
SOCIEDADES VASCO ARGENTINAS

"Eskualdun den gizon orok altxa beza buruia"

ETXEPARE (1545)

BELGRANO 1144 BUENOS AIRES

Bazkide jaunok:

Euskeraren-Eguna geure izkuntza, abixenak, eta geure izakera gustia gogorazoteko sortua da. Geure euzkel-abendaren agergairik onena ta indartzuena dalako.

Euskera, ama, emazte edo seme bat maitatzen dan mallako maitasunetan ipinten dogu, ba nor garan erakutsirik argiena izanik, berau barik euzko-izatea galduta dago.

Iru maitasunok bakotxak bere eguna dabe, baña urte gustiko egunak eta bixitza gustiko urtiak, eurekaitik bizi dira. Au gaitik ba, euzkera be beti maite izan bear dogu, baña batez bere, bera goraltzeko autu dogun egun berezian, EUSKERA-EGUNIAN.

Zelan miatatu? Itaun oneri erantzun erraza emon bear, au da, dakigunok itz-egiten jarraituz, eta eztakienak ikasiz. Egunaro euzkeraren alde zeozer egin, gitxi edo asko, baña bakotxak aldabena, gelditu barik, idazten, itz egiten, ikasten, baña jarrai, ba orrela, konturatu barik, euskera utsik erabilliko dogu geure artian. Ainbat euskeldun gara ludi onetan. Alkarrekin euskera beti erabiltzen alegindu. Onetarako iñok eztauzku eragozpenik ipiñiko, ba geuk gura badogu, et geure artian erabilli nai, arduraz, beti txukundu ta garbitzen, alkarrekin doguzan artu-emonetan,euskera indartuko da, et orregaz geure izakeria be gogortu.

Alan egin daigun ba, maitasunez, bere garrantzia emonaz, geuria dalako ez beste edozer zio edo motibo gaitik, geure goguaren agerkairik onena dalako baño, eta norbere gauzak, norbere abenda, norberen elia, norberak jabon bear dauzalako baño. Onegaz agertuko dogu ludi gustian, erri baten semiak garala, geure EUZKADI maitearen semiak, eta maitasunori zendotuteko be, euskerea baño bide oberik ez.

Orain badakigu eragozpen aundiak dagozala euskera azke ta zendo bixi dedin. Au gaitik bear bada, gure arduria be andiagua izan bear berari indarra emoteko. Au da EUZKALTZALEA'N lana, eta bear dogun azkatasunagaz berau zabaldu eta irakasteko erraztasunak lortu arte, geure egin bearra gogorra izan arren, eten bakoa da, ta orretarako gagoz emen BUENOS-AIRES'EN. Ia emetik zabaltzen dogun geure aberrira be indarra, eta kemena, euskera an be piztu dedin, eta geure anayen artian zabalduz, idartu dedin. Euskeldunak nai badabe, euskera ezta ilko. Orretarako danok artu bear dogun erabagia, EUSKERA-EGUN onetan, geure semiari ele maite au irakatsiz, itxi leikiogun ondasunik onena dala jakin asoteko be emen gagoz.

EUSKERAREN-EGUNA, ludi gustiko euskeldunak alkartzeko sortutako eguna da. Pantzeska Jabier Deuna da gure zaindari. Deun onen bitartez bixi ta indartuko alda.

Egun onetan, goguan euki bear doguz, Amerika lurrak euskel abixenez, aberri oneiri on egindako Mendoza, Garai, Legazpi, Txurruka, Elkano, Nekotxea, Bolibar, Irala, Armentia, Zabala, Lizarralde, Jaka, Olariaga, Etxenagusia, Otaegi, Uriarte, Pello Mari Otaño, Bereziartua, Barrena, eta beste asko. Baita, ludi zabal, gure erriari ozpe emondako Loyola, Jabier, Arana-Goiri, Kanpion, Arantzadi, Unamuno, Garikoitz, abar eta abar.

Ixen oneik, eta beste asko ta asko, geure erriko seme bikain, eta aberri lurreko zati aipagarriak dira.

¡GORA EUSKERA-EGUNA!

Señores socios:

En el Día del Euskera recordamos y amamos al idioma de nuestros apellidos, emanados del Caserío, cuna y alma de nuestro ser colectivo.

Le recordamos y amamos como quien recuerda y ama a una madre, a una esposa y a un hijo.

El Euskera es esencia del pasado, virtud del presente y energía del futuro; es la vida toda de nuestro pueblo, el espíritu inmortal de nuestra raza.

Esos tres amores tienen cada uno un día respectivo, si bien todos los días del año y todos los años de la vida, se viven plenamente por gracia de ese amor. Así el Euskera, idioma del ser, verbo de la raza y espíritu del alma vasca, es amado todos los días y especialmente en el Día del Euskera.

¿Cómo se ama?, preguntarán algunos; se lo ama conservándolo los que lo saben y aprendiéndolo los que lo ignoran, en un ejercicio habitual grande o pequeño, pero constante, tenaz, sin desmayos.

¿Quién puede impedirlo? Nada ni nadie. Ninguno puede impedirnos que lo llevemos y lo cultivemos en nosotros mismos.

Entonces, si lo hacemos con ese amor inextinguible, pronto nos expresaremos todos como lo que somos, hermanos de un pueblo que reconocen un mismo origen. Día llegará en que se hablará con libertad y no será objeto de persecuciones, habrá llegado la hora de que a la sociedad que nos oprime la podamos tildar de culta y civilizada.

El Día del Euskera es el de tu ofrenda de amor al idioma de tu ser.

Brillen en este Día con especial fulgor, los apellidos: Mendoza, Garay, Legazpi, Txurruka, Elkano, Nekotxea, Bolibar, Loyola, Xabier, Armentia, Garikoitz, Arana-Goiri, Campion, Aranzadi, Unamuno, Lizarralde, Jaka, Olariaga, Etxenagusia, Pello Mari Otaño, Otaegi, Bereziartua, Barrena...

Son trozos de tierra ancestral. Son voces profundas del idioma vernáculo.

GORA EUSKERA MAITEA...

3 DE DICIEMBRE DE 1954

VI DIA DEL EUSKERA

1949-1954

Diciembre, 3, a las 18 horas:

Preparado por el INSTITUTO AMERICANO DE ESTUDIOS VASCOS y con la adhesión de todas las sociedades vascas, tendrá lugar un **Acto Académico** en el aula magna de la **Facultad de Filosofía y Letras de la Universidad Nacional de Buenos Aires**, Viamonte 430.
El Profesor Dr. ISAAC LOPEZ MENDIZABAL, disertará sobre

"EUSKERAREN BEREZITASUN JAKINGARRIAK"

(Características notables del euskera)

Conferencia del P. BONIFACIO DE ATAUN, sobre
"LINGUA VASCONUM PRIMITIÆ"
(1er. Libro euskérico, de 1545)

Diciembre, 4: En el Laurak Bat, Belgrano 1144.
A las 19 hs.: Homenaje al poeta vasco

PELLO MARI OTAÑO

Apertura por el Presidente de Euskaltzaleak, D. BENITO MONTOYA.
Discurso por el Sr. Dn. JOAQUIN DE GANBOA.
Concierto por la Profesora Srta. PERLA ARGERICH BEASCOECHEA.
A las 21 hs.: Banquete en honor de los profesores de euskera.

Diciembre, 5, a las 11 hs.: Misa en honor de S. F. Xabier, Patrono del Euskera Eguna. (In Memorian). Iglesia Ntra. Sra. Monserrat, Belgrano 1151.

ADEIZDEYA **INVITACION**

82/83 1e et T.

FSC
TT-COC-2573